

MANIFESTUA

KONPROMISO HANDIKO ARGITALETXEA GARA

Istorioek ahalmen handia dutela sinesten dugu. Gizakia eraikuntza narratibo bat da. Gure mundua kontakizunen bidez dago eraikita, eta gu horietan murgilduta bizi gara. Istorioek mundua ulertzen, errealitate konplexuak barneratzen eta kontzientzia pizten laguntzen digute.

GURE LIBURUEK KONPROMISOA ERAKUSTEN DUTE. LIBURUAK EGITEKO ERABILITAKO LEHENGAIK BIRZIKLAGARRIAK DIRA, ETA AISE BETETZEN DUTE JASANGARRITASUNAREN, EKONOMIA ZIRKULARRAREN ETA ENERGIAREN KUDEAKETAREN ALORREKO EUROPAKO ARAUDIA.

ELKARRIZKETA ERAGITEN DUGU

Irakurtzeak elkarrizketarako eta iritzi-trukerako eremu bat sortzen du zehar guztiaren: familian, eskolan, liburutegian, irakurketa-taldeetan, lagun taldeetan, sare sozialetan... Liburuetan aurki daiteke ideia askoren jatorria eta konpondu gabeko arazoaren konponbidea, bai eta oraindik sortu ez diren arazoena ere.

IRAKURKETAREN BIDEZ, ELKARRIZKETA ERAIKITZAILEA SUSTATZEN DUGU.

IRAKURTZEA ALDAKETA-ERAGILE DELA ALDARRIKATZEN DUGU

Haur eta gazteentzako kalitatezko literaturaren defentsa egiten dugu. Konpromisozko istorioen alde egiten dugu apustu, istorio ausarten alde, gogoeta egitera, trebatzera eta ondo pasatzera bultzatzen gaituzten istorioen alde. Liburuak mundua ulertzeko tresna ahaltsuak dira. Bilakaera eragiteko tresnak.

ALDAKETA ERAGITEKO, GUZTIOK GARA GARRANTZITSUAK, ETA EDITORE ETA IRAKURLE GAREN ALDETIK, EGINKIZUN AKTIBOA IZAN NAHI DUGU ERRONKA HORREN AURREAN.

GURE HELBURUAK

Ez dugu munduko argitaletxerik onena izan nahi. Gure irakurleentzat errespetu handiena merezi duen argitaletxeetako bat izatea da gure nahia.

GURE PROZESUAK HOBETZEKO ETA HAIEN INGURUMEN-INPAKTUA GUTXITZEKO LANEAN JARRAITUKO DUGU. LIBURU DIBERTIGARRIAK ARGITARATZEN JARRAITUKO DUGU, ETA ALDI BEREAN, SORMENA, SENTSIBILITATEA ETA LURRAREKIKO NAHIZ LURREAN BIZI DIREN IZAKIEN DIBERTSITATEAREKIKO ERRESPETUA SUSTATZEN DUTENAK.

IRAKURTZEAK ABERASTU ETA ERALDATU EGITEN BAIKAITU. ALDAKETA LIBURUETAN HAZTEN DA.